

## **Eta oraindik zor zaizkionak. Martin Ugalde, Honoris Kausa Doktore**

Idoia Arozena

*Gara*, 1999-12-16: 46.

Miramar Jauregian sartu eta pasiloan barrena aurrera egin ahala, berehala antzeman zitekeen atzoko ekitaldi akademikoa ez zela ohikoa, gizarteko esparru desberdinetako makina bat gizon eta emakume zegoelako bertan. Euskal Unibertsitateak omendu zituen hiru kideak, Ugalde, Etxenike eta Goiriena de Gandarias asko eta ondo lan egindakoak dira, bakoitza berean, eta atzokoa omenaldi akademiko baina berezia izan zen. Atzo Miramarrera hurbildu zirenen artean, idazle, euskaltzain, euskaltzale eta euskal kultura eta komunikabideetako eragile mordoa zegoen, baita politikan diharduten beste asko eta zientzia arloko makina bat ere. Eta, noski, unibertsitateko ordezkari eta lankideak, azken finean, atzoko ekitaldia unibertsitateak berak antolatzen zuelako.

Agian horregatik, hurbildutakoen zerrenda egiten hasteak erreparoa ere ematen du, kanpoan geldituko direnen zerrenda agertzen direnena bezain luzea delako. Edo baliteke luzeagoa izatea. Baina zerrenda egin egin behar dela eta...

Politikgintzan dihardutenen artean, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria buru zutela, Iñaxio Oliveri, Mari Karmen Garmendia eta Juan Mari Atutxa izan ziren Eusko Jaurlaritzatik.

Gipuzkoako Foru Aldunditik, Roman Sudupe, Diputatu Nagusia, eta Iñaki Alkiza.

Han ziren Odon Elorza Donostiako alkatea, Emakundeko Txaro Arteaga, Xabier Markiegi Arartekoa, Jose Antonio Ardantza eta Carlos Garaikoetxea lehendakari ohiak, Ramon Labaien eta Juan Jose Pujana ere, besteak beste.

Euskaltzaindiatik eta euskal mundutik, Jean Haritzelhar buru zutela, Xabier Kintana, Juanito San Martin, Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegia", Eusko Ikaskuntzako Jose Mari Velez de Mendizabal, Eusko Filmategiko Martin Ibarbia, Jakin aldizkariko zuzendari don Juan Mari Torrealdaia, eta Euskaldunon Egunkariako Martxelo Otamendi eta Iñaki Uria zeuden, besteak beste.

Eta, guztien ahotan, Martin Ugalderi egindako Honoris Kausa Doktore merezia, nahiz eta batzuentzat berandutxo iritsi den.

### **Joan Mari Torrealdaia. Jakin aldizkariko zuzendaria**

"Martinentzat gaurkoa egun handia da, baina sekula ez du bilatu errekonozimendu publikorik. Bere kontzientziak eta bere etikak aginduta egin du lan, herriarekiko konpromisoagatik. Ez da politikoa, literatoa eta idazlea da, baina beti kontzientziaren ahots gisa aritu da eta herriarekiko konpromiso izugarri horrekin. Uste dut Martinek oso ondo sintetizatzen dituela konpromiso etikoa eta duintasuna, gauzak azaltzeko moduan. Omenaldiari dagokionez, berandutxo datorrela iruditzen zait, eta oraindik beste batzuk

ere zor zaizkio. Euskal herriak edo Euskal Herriaren zati batek badu zorrik berarekin, kontu eginda Martin Ugalde Eusko Jaurlaritzan aritu zela. Beraz, aitorpen bat zor zaio, Martinez balio duelako, eta, batez ere, Lizarra-Garaziko koiuntura honetan herri bat aurrera nola eraman eredu gisa balio duelako".

**Xabier Kintana.** *Euskaltzaina*

"Martinen kurrikuluma euskaratik gaztelaniara pasatzen suertatu zait. Aparteko aukera izan dut, beraz, ezagutzen ez nituen datu biografikoak ezagutzeko, eta harrigarria iruditu zait. Martin Ugalde ez da bakarrik idazle ona eta kazetari bikaina izan, baizik eta, nolabait, Euskal Herriak izan duen erronka honetan pertsona batek eman dezakeen lekukotasunik oinarrizkoena eman du: bere bizitza, bere famili giroa, bere konpromiso politikoa... Ezin diogu inori eskatu gu emateko prest gaudena, eta honek lan miresgarria egin du, eta nire txalo guztiak gutxi izango lirateke pertsona honen bizitza eta merezimenduak goraiatzeko. Gainera, bazen orduan, urteetan aurrera datorrelako. Atzerrira euskaldun asko joan zen, baina batzuek, behin erbestean kokatu ondoren, bere bizimoduaren eta interes pribatuen alde egin zuten, bidezkoa den bezala. Martinek, aldiz, bere kazetaritza lana betetzeaz gainera, bere bihotza eta bere sena beti Euskal Herrian izan ditu, eta aukerarik txikiena topatu zuenean, berehala Euskal Herrira itzuli zen Venezuelan zituen bizimodu lasaia, eta estima sozial handia alde batera utzita. Hemen ia ezerezetik hasi behar izan zuen, ia ia ez baikenuen ezagutzen. Eta inoiz gaizki ere tratatu dugu, eta gerora ikusi da zein oker geunden eta zenbat zor diogun".

**Jon Maia.** *Aurreskularia eta kazetaria*

"Horrelako pertsona bat beti da eredu. Horrenbeste urtetako lanaren eta ahaleginaren ondoren –Euskaldunon Egunkariaren sorreran, besteak beste– eta bultzatzaile gisa, beti da polita horrelako pertsona bati aurreskua dantzatzea, eta honako honetan are gehiago, ni neu ere kazetari hasberria bainaiz".

**Jean Haritzelhar.** *Euskaltzaindiako lehendakaria*

"Osasun onarekin segituko duela pentsatzen dut. Hori nahi nioke oparitu, eta zorionak, dudarik gabe, ez baitut ahazten Martin Ugalde ere ohorezko Euskaltzaina dela, eta hortakotz nago hemen; nihaur ere Unibertsitateko Honoris Kausa doktore naiz, eta, beraz, hemen nago alde horretatik, eta Euskaltzainburu gisa ere bai, Martin Ugaldarentzat. Zorionak Martini, bihotz-bihotzez".

**Ramon Labaien.** *Donostiako alkate ohia*

"Zor zitzaion omenaldi hau Martin Ugalderi, eta aspalditik gainera. Eta, gaurko egunean, zera opari diot, ikusi dezala euskal grina, besteak beste, berari esker pizten ari dela".

**Xalbador Garmendia.** *Euskaltzain urgazlea*

Euskal Herriaren eta euskararen alde lan asko egin du, eta, gainera, euskaraz. Venezuelan aritu zen, eta, hala eta guztiz ere, etxekoei transmititu die euskara: andrea euskaldundu du eta familia euskalduna egin du. Zenbat idatzi duen eta zein lan egin duen jakinda – besteak, beste Euskaldunon Egunkariaren aldeko ahalegina–, guztiz merezi du, eta zor zaio. Ez dago Martin Ugalde goratu beharrik, merezi duelako. Benetan pertsona zintzoa izan da Euskal Herriarekin, printzipioen arabera jokatu duen gizona da".

**"Txillardegia".** *Idazlea*

"Martin Ugalde pertsona fina izan da beti, eta beti izan du Euskal Herria helburu. Oso urte txarrak pasa dituela uste dut. Hori berak esan behark luke, eta seguru aski ez du askorik esango; baina oso urte gogorrak pasa ditu hemen, zentzu guztietan. Orain bai, orain ohore asko egin zaizkio eta pozten naiz, baina berak azken urte hauetan pasa ditueni buruz hitz egingo balu, gogorra izango litzateke. Ongi dago merezimendu hau egitea, baina berandu da".